



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA



PRENTSARAKO OHARRA  
2019/04/05

## **Gernikako Batzarretxea, EUDELeK udal demokraziako lehenengo 'makilei' egindako omenaldiaren agertokia**

EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteak Gernikako Batzarretxean oroitu du gaur Udal Demokraziaren 40. urteurrena, ekitaldi hunkigarri baten bidez. Ekitaldi horretan, diktadura ondorengo lehenengo udaletako alkateak omendu dira; izan ere, herriaren nahia ordezkatzu, herritarrengandik gertueneko erakundeak berreskuratu zituzten. 1979ko alkate jaun-andreak omendu nahi izan ditu EUDELeK. Hala, “ondareztat” jo du “adostearen, konpontzearen eta hobetzearen alde egunez egun, herriz herri, izan duten konpromisoa”. Ekitaldiaren buru Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakari **Ana Otadui**, EUDELeko elkarte-buru eta Getxoko alkate **Imanol Landa**, lehenengo elkarte-buruorde eta Irungo alkate **Jose Antonio Santano**, eta bigarren elkarte-buruorde eta Errenteriako alkateorde **Garazi Lopez de Etxezarreta** izan dira.

Guztira emakumezko 4 alkate eta gizonezko 224 alkate hautatu zituzten diktaturaren ondorengo lehenengo udal hauteskunde demokratikoetan, 1979ko apirilaren 3an. Une historiko arazotsu eta hunkigarrian euskal udalgintza berriaren oinarriak ezarri zituzten eta autogobernua nahiz gaur egun indarrean dagoen sistema instituzionala eraikitzeko itzelezko urratsa egin zuten.

Udal Demokraziaren 40. urtemugaren eta (2015-2019) agintaldiko azken Batzar Nagusiaren harira, EUDELeK Udal modernoan “oinarri sendoak” ezarri zituzten gizon-emakumeak omentzeko ekitaldi hunkigarria antolatu nahi izan du. Beraiek ekarri zuten udal erakundeak herritarrei zabaltzeko eta haiengana hurbiltzeko nahiz elkarrekiko harremanetan jartzeko prozesua, izan ere, orduko gizartean parte-hartzea gero eta nabariagoa bilakatu zen eta aldaketek ez zuten etenik.

EUDELen omenaldia eta Batzar Nagusia batera egiteari esker, EAEko lehenengo legegintzaldi haren 70 alkate jaun-andre baino gehiago elkartu dira, gaur egungoekin batera. Belaunaldi arteko topaketa historiko hau, gaur goizean izan da, hain zuzen ere, euskal identitate eta kulturaren ikur nagusietakoa den Gernikako Batzar Etxean. Udalentzat ere identitate handiko lekua da Batzar Etxea, izan ere, han eratu zuten EUDEL 1982ko maiatzaren 8an.

‘Makila eskuz esku 40 urtez’ lelopean eta ‘makila’ bera ekitaldiaren ildoan izanik, eskarmentua eta udaletan gauzak “egiten jakiteko” modua, eskuz esku, helaraztea da izan da 40. urtemuga ospatzeko ekitaldi honen ardatza. Ana Otadui andereak, Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak, ekitaldiaren harrerako agurra emateko hitzaldian, nabarmendu duenez, “Daborduko badira lau hamarkada Gernikako Batzarretxe hau aukeratu zala, leku historikoa dan ezkerreko, Euskadiko Udalen Elkartearen eratzeko. Pozarren nago gaur Gernikan egingo jatzuelako omenaldia zeuei, 1979an lehenengo udal demokratikoen buru jarri zinen pertsona adoretuoi”. Otadui ere honakoa gehitu du: “Nik, beste askok lez, pentsetan dot zerbitzu publikorako bokazinoa daukan pertsona batentzat ez dagoala gauza pozgarriagorik bere herriko alkatea izatea baino”.

Hitzaldi instituzional honetan, EUDELEko elkarteburua den Imanol Landa jaunak alkate jaun-andreen lana goretsi du belaunaldiz belaunaldi datorren “transmisio kate bateko begiak” direlakoan, garai bakoitzean udalerrien bizi-kalitatearen eta aurrerabidearen alde guztia emateagatik. Landa elkarteburuak euskal udalerrien aitoren bateratua adierazi die haien udalen alde lan egiteko bizitza eskaini zuten "boluntario guztiei, baliabide gutxiarekin eta trukean ezer jasotzeko asmorik gabe".

Gainera, EUDELEko elkarteburuak ere herritarrengandik gertuen dauden herri-erakundeen zeregin garrantzitsua nabarmendu du: “Aurrez aurre begiratu izan diegu etengabe gure bizilagunei, haien errealitateak gertu.” Eta batez ere zailtasun ekonomikoak egon direnean, “gehien behar zutenei laguntza ematen”.

Bestalde, Imanol Landak gogoan izan ditu “ausardiaz eta uste osoz”, “garai ilunetan” lan egin behar izan zutenak, terrorismoak udaletako bizitza eta lana mehatxatu zuenean. “Garai gogor haietan ez genuen etsi, lanean jarraitu genuen ausardiaz eta uste osoz, gure udalerrietako aurrerabidearen alde. Gaur egun garena uste sendoko hainbat pertsona onberari zor diogu, haiek asmatu baitzuten indarkeria zentzugabeari erantzuten, ideia eraikitzaileekin eta ekintzekin.”

### **Iraganeko eta etorkizuneko erronkak**

“Ondarea, eskuz esku helaraztea” islatzeko, omenaldi honetan Historian zeharreko ibilbidea egin dute, 1979 eta 2019 arteko sei alkateen lekukotzak jasotzearen bidez. Beteranoen eta haien ondorengoen ekarpenak elkarri emanez, azken lau hamarkadetako Euskal Udalen iraganeko eta etorkizuneko erronkak gogora ekarri dituzte. Gainera, etorkizunari begira, seiek hainbat aholku luzatu dizkiete ekainean eratuko diren Udal berrien agintariei.

**Manuel Fernando Ramosek** -1979an Ortuellako alkatea izan zenak- eta **Arantza Etxebarria** Gorlizko alkateak gizarte-zerbitzuetan eta arreta komunitarioan izandako bizipenen berri eman dute. Biek goretsi dute udaletan egiten den oinarritzko lanaren balioa, “herri eta hirietatik komunitatea eratzeke”, eta ongizatea, bizi-kalitatea eta gizarte-kohesioa garatzeko.

**M. Sol Bujanda** Arabako Moredako demokrazia garaiko lehenengo alkatea eta **Idurre Bideguren** Bermeoko alkatea emakume hautetsien lidergo eta jabekuntzaren garrantziari buruz bat etorri dira udal politika “eraldatzeko” eta udalerrietan gizon eta emakumeen arteko eraikuntzan aurrera egiteko elementu gisa.

Mari Sol Bujandak argi dauzka belaunaldi berriei eman beharreko aholkuak: “gaur egungo alkateek, eta zinegotziek, foru ahaldu nagusiek eta autonomiako sailburuek zeregin handia dute berdintasunaren alorrean. Haien eginkizuna ezinbestekoa da, izan ere, ez du beste inork egingo haien orde. Emakumeek ardura politikoak betetzeari dagokionez, etiketak baztertu behar dira. Kultura eta Gizarte Sailburu izateaz gain, badugu gaitasuna Hirigintza edo Ekonomia zuzentzeko.”

**Julen Mendoza** Errenteriako alkateak, euskal udalek bizikidetzaren lantzearen aldeko hautu irmoa hartu beharra babestu du eta jendearengandik gertuen dauden herri-erakundeak herritarren arteko loturak sendotu ditzaketela nabarmendu du.

Amaierako hitzaldia **Jose Antonio Ardanza** Lehendakariaren eskutik heldu da. Bera Arrasateko alkatea izan zen 1979an eta, ondoren, Gipuzkoako Ahaldu Nagusia. Bere esperientzia politiko zabaletik abiatuta, udalerriek aurrera egiteko herriaren mesedetan lan egiteko gogoak eta alkateen lidergoak zer dakarten azaldu digu Ardanza Lehendakariak.

Ildo horretan, Ardanzak demokraziaren lehenengo Udalen hastapenak gogorarazi dizkigu: “Ez geneukan telefono mugikorrik, ezta internet, sare sozialik, edo gaur egun arruntak diren gauza askorik; osterantzean, sinesten genuen hainbat kontutan: askatasuna, demokrazia, berdintasuna, ideien errespetua, gure gizartearen aniztasuna eta gure udalerrietan. Izan ere, beraiek behatzen, epaitzen eta bozkatzen gaituzte”. “Beti pentsatu dut udalak direla politikarien eginkizuna ikasteko eskolarik onena; izan ere, gure 7 Lehendakarietatik 3 alkate izan ziren lehenago”, aipatu du Ardanza Lehendakariak.

### **Topaketa gogoangarria**

EUDELEk omendu nahi izan ditu topaketa honen protagonistak **Iker Belaustegi** Munitibarreko alkateak 2009an demokraziaren udalen 30. urtemugan egindako bertsoekin. Bertso bera berriro interpretatu dute beren-beregi omenaldi honetan, **Olatz Salvador** abeslariaren ahots eta gitarraren bitartez.

Imanol Landak eta Ana Otaduik, Eudeleko bi elkarteburuordeak diren Jose Antonio Santano Irungo alkatearekin eta Garazi Lopez de Etxezarreta Errenteriako alkateordearekin batera, bertsoaren oparia eman diote omendutako bakoitzari, eskura.

EUDELEk aitorten publiko honetan egon ezin izan duten udal arduradun kideei bereziki oroitu nahi ditu. Denak gogoan eduki ahal izateko, 228 izenekin egindako bideo bat erakutsi da eta tarte batzuetan 1979ko zenbait irudi historiko tartekatu dira.

Ekitaldira EUDELEko azken elkarteburu izan den **Ibone Bengoetxea** eta aurretik egon diren **Jokin Bildarratz** eta **Karmelo Sainz** de la Maza ere etorri dira.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA



NOTA DE PRENSA  
05/04/2019

## La Casa de Juntas de Gernika, escenario del homenaje de EUDEL a las primeras ‘makilas’ de la democracia municipal

EUDEL-Asociación de Municipios Vascos ha conmemorado hoy, en la Casa de Juntas de Gernika, el 40 aniversario de la Democracia Municipal, con un emotivo acto en el que se ha rendido homenaje a los alcaldes y las alcaldesas que constituyeron los primeros Ayuntamientos tras la dictadura, y quienes representando la voluntad popular recuperaron las instituciones más cercanas a la ciudadanía. EUDEL ha reconocido la labor de las alcaldesas y alcaldes de 1979, así como su compromiso por “acordar, solucionar y mejorar día a día, pueblo a pueblo”. El acto ha estado presidido por la presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, **Ana Otadui**; el presidente de EUDEL y alcalde de Getxo, **Imanol Landa**; el vicepresidente primero y alcalde de Irun, **Jose Antonio Santano**, y la vicepresidenta segunda y teniente de alcalde de Errenteria, **Garazi Lopez de Etxezarreta**.

Un total de 4 alcaldesas y 224 alcaldes fueron elegidos en las primeras elecciones municipales democráticas celebradas al término de la dictadura el 3 de abril de 1979. En un momento histórico complejo y emocionante sentaron las bases del nuevo municipalismo vasco dando un enorme paso en la construcción del autogobierno y del sistema institucional vigente.

Con motivo de los 40 años de la Democracia Municipal, y con ocasión de su última Asamblea General del mandato (2015-2019), EUDEL ha querido organizar un emotivo acto de homenaje a las mujeres y hombres que como ha destacado el presidente de la Asociación de Municipios Vascos, Imanol Landa, pusieron los “sólidos cimientos de los Ayuntamientos modernos, propiciando su apertura, cercanía e interrelación con una sociedad cada vez más participativa y en constante evolución”.

La coincidencia del homenaje y de la Asamblea de EUDEL, ha brindado la oportunidad única de poder reunir a más de 70 líderes municipales de aquella primera legislatura, junto a actuales alcaldesas y alcaldes de la CAV. Este encuentro intergeneracional e histórico ha tenido lugar esta mañana en la Casa de Juntas de Gernika, uno de los mayores símbolos de la identidad y cultura del pueblo vasco. Un espacio de gran carga simbólica para los propios Ayuntamientos, puesto que fue en la Casa de Juntas donde se fundó EUDEL un 8 de mayo de 1982.

Con el lema ‘Makila eskuz esku 40 urtez’, y la propia ‘makila’ como hilo conductor de la ceremonia, la conmemoración de este aniversario se ha centrado en la transmisión “de mano en mano” de la experiencia y el “saber hacer” municipal.

En su discurso de bienvenida al acto, la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui ha destacado que “hace ahora cuatro décadas, la Casa de Juntas de Gernika fue el histórico escenario elegido para la constitución de la Asociación de Municipios Vascos y hoy, acoge el homenaje a las valientes personas que os pusisteis al frente de los primeros ayuntamientos democráticos en 1979”.

“Soy de las que piensan que para una persona con vocación de servicio público no hay mayor satisfacción que poder ser Alcaldesa o Alcalde de tu propio pueblo”, ha añadido Otadui.

En su discurso institucional, el Presidente de EUDEL, Imanol Landa ha puesto en valor el trabajo de alcaldesas y alcaldes como “eslabones de una cadena de transmisión” que viene de generaciones y que en cada tiempo lo ha dado todo por mejorar la vida de su ciudadanía y el progreso de sus municipios. El presidente Landa ha expresado el reconocimiento conjunto de los municipios vascos “a todas las personas voluntarias, que con pocos recursos y sin esperar nada a cambio dedicaron sus vidas a trabajar por sus municipios”.

Landa ha destacado también el papel clave de las instituciones más próximas a la ciudadanía en las que “siempre hemos vivido entregados a nuestras vecinas y vecinos, pegados a su realidad y mirándoles a los ojos”. En especial en las etapas de dificultades económicas, “sosteniendo a las personas que más lo necesitaban”.

Imanol Landa también se ha referido también a la “valentía y convicción” de quienes tuvieron que trabajar “en una etapa de oscuridad en la que el terrorismo amenazó la vida y la convivencia en los municipios, en unos tiempos duros que no nos hicieron rendirnos. Lo que somos hoy es gracias a la esforzada labor de mujeres y hombres valientes, que supieron responder a la sinrazón de la violencia con ideas constructivas, con hechos, y sobre todo con principios”.

### **Retos pasados y futuros**

Para representar la “transmisión del legado, eskuz esku”, en el homenaje se ha realizado un recorrido por la historia a través de los testimonios de seis alcaldesas y alcaldes de 1979 y de 2019. En una dinámica de intercambio entre veteranos y sucesores se han repasado los retos pasados y futuros de los Ayuntamientos vascos a lo largo de estas cuatro décadas. Además, han ofrecido consejos para los próximos líderes de los Ayuntamientos que se constituirán tras los comicios municipales del 26 de mayo.

**Manuel Fernando Ramos**, alcalde de Ortuella en 1979, y la actual alcaldesa de Gorliz, **Arantza Etxebarria**, han aportado su experiencia en el ámbito de los servicios sociales y la atención comunitaria. Ambos han destacado el valor del trabajo de base a nivel municipal para “hacer comunidad desde nuestros pueblos y ciudades”, y avanzar así en el desarrollo del bienestar, la calidad de vida y la cohesión como sociedad.

**M<sup>a</sup> Sol Bujanda**, primera alcaldesa de la democracia en Moreda de Álava, junto a la alcaldesa de Bermeo, **Idurre Bideguren**, han compartido la importancia del liderazgo y el empoderamiento de las mujeres electas, como elemento para “transformar” la política local, y lograr unos municipios más igualitarios para mujeres y hombres.

Bujanda tiene claro qué consejos dar a las nuevas generaciones: “las actuales alcaldesas, como las concejales, las diputadas y las consejeras, tienen un gran trabajo que hacer en materia de igualdad. Su labor es imprescindible, porque nadie va a hacer esa tarea por ellas. En la participación de las mujeres en cargos políticos hay que huir de las etiquetas. No sólo somos aptas para dirigir las áreas de cultura o acción social, sino que también servimos para gestionar urbanismo o economía”.

**Julen Mendoza**, alcalde de Errenteria, ha defendido la necesidad de que los ayuntamientos apuesten por el trabajo de la convivencia, enfatizando que son las instituciones más cercanas las que mejor pueden fortalecer los lazos entre las personas.

La intervención final ha corrido a cargo del Lehendakari **José Antonio Ardanza**, quien fuera alcalde de Arrasate-Mondragón en 1979 y posteriormente Diputado General de Gipuzkoa. Ardanza ha hablado, desde su amplia experiencia política, de lo que supone la vocación de servicio público y el liderazgo de las alcaldesas y alcaldes para hacer avanzar sus municipios.

En este sentido, el lehendakari ha recordado como fueron los inicios de los primeros Ayuntamientos de la democracia: “no teníamos móviles, ni internet, ni redes sociales, ni muchas de las cosas que hoy son normales; pero, teníamos fe, fe en la libertad, fe en la democracia, fe en la igualdad, fe en el respeto a las ideas, fe en la pluralidad de nuestra sociedad, y fe en nuestros pueblos que nos, os, observan, juzgan y votan”. Ardanza ha añadido que “los ayuntamientos son la mejor escuela del aprendizaje del quehacer político; no en vano, de nuestros siete Lehendakaris tres fueron alcaldes”.

### **Un encuentro para el recuerdo**

EUDEL ha querido obsequiar a las personas protagonistas de este homenaje con el bertso compuesto por **Iker Belaustegi**, alcalde de Munitibar en 2009, con motivo de la celebración de los 30 años de los ayuntamientos de la democracia. El mismo bertso ha sido reinterpretado para este nuevo homenaje, a través de la voz y la guitarra de la cantante **Olatz Salvador**.

El regalo del bertso ha sido entregado personalmente a cada alcalde y alcaldesa del 79 por parte de Imanol Landa y Ana Otadui, junto a los dos vicepresidentes de EUDEL, Jose Antonio Santano, alcalde de Irun, y Garazi Lopez de Etxezarreta, teniente de alcalde de Errenteria.

EUDEL ha querido recordar en especial a las personas que no han podido acompañar a sus compañeras y compañeros en este reconocimiento público. Para tenerlos presentes en toda la ceremonia, se ha proyectado un vídeo con la lista de los 228 nombres, intercalado en varios momentos con imágenes históricas de 1979. Al acto también han asistido la ex presidenta de EUDEL, **Ibone Bengoetxea**, y sus predecesores en el cargo, **Jokin Bildarratz** y **Karmelo Sainz de la Maza**.